ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2024ko urriaren 30a, asteazkena • 124 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

## IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2024ko urriaren 22ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

**Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 593/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Nekazaritza Saileko, Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako eta Araba Garapen Agentzia sozietate publikoaren zuzendaritza-gerentziako titularren bateragarritasun adierazpena onestea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 594/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak zenbait erakundetan duen ordezkaritza berritzeari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 595/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea udaletan turismo inbertsioei aurre egiteko laguntza lerroaren ebazpenari, zeina Kontseiluaren martxoaren 12ko 125/2024 Erabakiaren bidez egin baitzen.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 596/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, M_T02/2024/0000000029 kreditu transferentziaren espedientea, 161.000,00 eurokoa, “Kreditu Orokorra” partidarako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 597/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea M_T03/2024/0000000024 kreditu transferentziaren espedientea, 110.000,00 eurokoa, “Informazio eta Zabalkunde Gastuak” izeneko partida funtsez hornitzeko, Enplegu, Merkataritza,Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 598/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Gesaltza Añanako igerilekuetan ur eroanbidea lurperatzeko obran eta Añanako Gatz Haraneko La Muera erreka birgaitzeko obran gastu bat baliozkotzea.

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA

Foru Gobernu Kontseiluaren 599/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea garapen bidean dauden herrialdetan irabazteko xederik gabeko entitateen bidez gauzatu beharreko urte anitzeko garapenerako lankidetza proiektuak finantzatzeko laguntza lerroaren ebazpena (deialdia martxoaren 19ko 149/2024 Erabakiaren bidez egin zen).

Foru Gobernu Kontseiluaren 600/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren irizpidea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua aldatzeko foru arau proposamena Arabako Batzar Nagusiek aintzat hartzearen aurkakoa.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 601/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Kontseiluaren uztailaren 9ko 412/2024 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa baiesteari (esp.: EMPREM-2024/00047).

Foru Gobernu Kontseiluaren 602/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Kontseiluaren uztailaren 9ko 412/2024 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa baiesteari (esp.: EMPREM-2024/00090).

## MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 603/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Gasteiz-Miñaoko Parke Teknologikoa VC2 bizikleta bidea eraikitzeko proiektuaren obrak prozedura ireki sinplifikatuaren bidez kontratatzeko espedienteari. Aurrekontua: 2.152.196,23 euro, BEZa barne; lanak gauzatzeko epea: zazpi hilabete.

Foru Gobernu Kontseiluaren 604/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea AP-1 eta AP-68 autobideetan diruz laguntzekoak diren tarteetan Arabako Lurralde Historikoko egoiliarrek ordaindu dituzten bidesariarengatik dirulaguntzak emateko 2024rako deialdiari.

## NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 605/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin partzuergoan den mendiko baso aprobetxamenduaren 1. lotearen likidazio osagarriari, Kontseiluaren abuztuaren 1eko 505/2023 Erabakiaren bidez esleitua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 606/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Kontseiluaren otsailaren 4ko 51/2020 Erabakiaren aldaketa onestea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 607/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Gasteizko Udalari dirulaguntza izendun bat esleitzeari, haren mendekoa den Animaliak Babesteko Zentroan 2024an izandako gastuen zati bat ordaintzeko.

## KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 608/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko kanpainan parte hartzen duten kirolarien garraio zerbitzuaren esparru akordiotik eratorritako hamaseigarren kontratuaren adjudikazioa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 609/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea elementu txikiak kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku hartzeak sustatzeko laguntzen lerroaren ebazpen osagarria, Kontseiluaren abenduaren 12ko 823/2023 Erabakiaren bidez onetsia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 610/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea Arabako hainbat kirol federaziorekin lankidetza hitzarmenak sinatzea, eskola kirola kudeatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 611/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Gazteriaren Foru Erakundeko langileen ordainsarien ehuneko 2ko igoerari, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak oinarri hartuta.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.10.30 06:43:41 Z